



SMAAP simulagailuan ala-delta eta parapentea irakasten da, bata nahiz bestea irudikatzen duten egiturak ezarri baitaitezke makinan, beso batek helduta. Goiko irudietan, Eider eta Enrique, Jorge Ibargoiaren monitorearen begiradapean. Eskuineko orrialdean, parapente hegaldia Arburu tontorretik (Aiako Harria).

TESTUA: MIKEL GARCIA
ARGAZKIAK: LANDER ARBELAITZ

Irun (Gipuzkoa)

Makinatik hodeietara

Udak eguraldia goxatzen duela aprobetxatuz, erortze libreko kirol praktikan arrakasta duen modalitatea proposatu nahi dizuegu oraingoan: parapentea. Hegan egin aurretik, ordea, beharrezkoa da ikastaro batean oinarritzko ezagutzak barneratzea. Horretarako munduko simulagailu bakarra Euskal Herrian dago, Irunen.

Hiruzpalau parapente eskola daude Euskal Herrian, baina Irungoa da simulagailua duen bakarra. Ibarla auzoan, mendi magalean dago goiko argazkietan ikus daitekeen beso mekanizatua. SMAAP (Ala Delta eta Parapenterako Sistema Mekanizatu Automatizatua) makinari esker, aire-ratu aurretik parapentean ibiltzeko mugimendu guztiak barneratzea da helburua, makinarako propio sortutako Box Method delakoari esker. Gai-nontzeko eskoletan zelaian praktikatzen da, zuzenean parapentea hartu eta altura gutxiko bidaiatxoeren bidez, baina simulagailuarekin segurtasun handiagoa, mugimenduen automatizazioa, eta alturazko hegaldietan erabili beharreko teknika guztia aplikatzea lortzen da. Finean, airean gerta

daitekeen egoerarik zailenetarako prestatzen zaitu. “Makinan ez zaude espazio errealean, baina keinua praktikatzen duzu, zer egin, eta hori barneratuta lanaren %90 egina duzu”, dio Jorge Ibargoiaren SMAAParen asmatzaileak. 47 urteko irundar hau 16 urtetatik dabil hegan, 1980an eskola sortu zuen, eta 1995ean, urte batzuk lehenagotik buruan zuen makina egia bihurtu. Orain, hegaldi eskoletan oro har berrikuntzarako gogo gutxi ikusten badu ere, makina frankizia bidez esportatu nahi du, hainbat herrialdetan interesa piztu baitu. Horrez gain, Echo Ibarren (Huesca) simulagailu berdina jartzeko asmoa du, ikasle aurreratuenek han jarrai dezaten praktikatzen, Gorka Lizaso monitorearen aginduetara.

SMAAPean harietira

Urduri hurbildu gara motor soinu indartsua egiten duen simulagailura. Parapentearen egitura imitatzen duen tramankuluan zintzilikatu eta zinta mugikorrean korrika hasi gara. Abiada hartutakoan, goraka eraman gaitu parapenteak –benetan, monitoreak kontrolatutako besoak tiratu gaitu goraka– eta airean geratu gara, eserita, lurretik metro pare batera. Kontrol urruneko aparailuarekin alde batera eta bestera mugitu du parapentea monitoreak, haizearen eragina irudikatuz, eta eskuez baliatuz, hari zehatzei tiraka, parapentea egonkortzea izan da gure lana. Ondoren, jaitsi, berriz ere zinta mugikorrean korrika egin eta lurreratzea simulatu dugu.

Zirrarragarria, baina proba txikia



baino ez da izan gurea, askoz mugimendu eta ariketa gehiago egiten baititu ikasleak. Berez, makinan sei-hamar ordu pasa ostean prest egongo ginatke alturazko hegaldi erreal bat egiteko. Sei-hamar ordu horietan, ‘zortziak’ egiten, aireratzen eta lur hartzen ikasten da. Batez ere parapentea egonkortzea da gakoa, bai aireratu aurretik parapentea altxatu eta puzten denean mugimenduak kontrolatuz, eta bai airean, haizearen danbatekoak saihestuz. Egon daitezkeen arazoen aurrean nola jokatu automatizatzea funtsezkoa da eta muturreko egoerak simulatzen dituzte, badaezpada.

Mendian behera planeatzen

Makinan igotzeko artega baginen, are gehiago bizkortu zaigu bihotza benetakako parapentea jarri digutenean. Noski, oraindik ez gaude prest bakarrik jaurtitzeko eta monitorearekin batera biplaza deiturikoan egin dugu salto, gu aurrean eta bera atzean. Aiako Harriko Arburu tontorrean, 450 metrora, eguraldi ona dagoela eta haizeak iparretik jotzen duela (hots, aurka dugula) ziurtatu ostean, korrika hasi gara, ahal dugun azkarren, monitoreak parapentea kontrolatzen duen bitartean. Haizeak goraka bultzatu gaitu, eta bat-batean... airean gaude! Sekulako inpresioa sentitu dugu, adrenalinak eztanda egin digu. Inguruan Aiako Harriko zelai ederrak ikus daitezke, eta itsasoa eta Donostia ere bertan ditugula dirudi. Irrati bidez lur

hartuko dugun gunean dauden baldintzen berri eman digu bigarren monitoreak. Parapentea planeagailua da eta jaistea da bere joera; zortziak eginez, azkarrago jaistea lortzen da. Monitorearen aholkuei jarraiki, arreta parapentean jarri beharrean helmugan paratu ditugu begiak (Makazagako zabalgunean) eta lan gogorra berari utzi diogu, hodeiak saihestuz eta haize korronteekin jolastuz.

Lasai goaz airean, 25-30 km orduko abiaduran, gutxi gorabehera (ala deltan 50 km orduko abiadura hartu ohi da). Hasiberritan, 5-20 km orduko haizearekin atera daiteke hegan egitera, eta ondoren ere, ez da komeni abiatzea 30 km ordutik gorako abiaduradun haizea badabil. Abiapuntua- ren altuerari dagokionez berriz, 3.000 metrotik gora zenbaitzuk arnasa hartzeko zailtasunak izaten dituzte, baina 8.000 metrotik bota denik ere bada! Hori bai, ez da batere gomendagarria.

Aiako Harrikoa jaitsiera hegaldia da, ikasteko aproposa, arazorik ematen ez duenetakoa. Dena den, airean denetik gerta daiteke: deriba –alde batera joan nahi eta haizeak bestera eramatea–, aurreranzko bulkada –haizeak parapentea norberaren aurrean jartzea–, turbulenzia, aire burbuila edo aire termiko burbuila –haize mugimendu ezohikoek bat-batean parapentea igo eta jaistea edota bide- tik ateratzea–, eta okerreana: parapentea bera tolestea, aldeetako batek airea galdu duelako. Halakoetan, auto-erro-

tazio batean sar zaitezke, horizontalean lurrarekiko paralelo eta mugimendu zentrifugoetan bueltaka. Bel- durgarria.

Bidasoa Hegaldi Eskolan hegan daramaten denboran, Eider Martinezek eta Enrique Garciak ez dute halakorik bizi behar izan, baina bai nahi baino konplikazio gehiago. “Urdurita- suna albo batera utzi eta buruarekin hotz jokatu behar da halakoetan”, dio Martinezek. Hegan egiteko bi leku interesgarri bezain desberdin aipatu dizkigu: Zarautzen, mendi-mazelaren haize korronteen esku orduak eman ditzakezu airean; Castejonon aldiz, hegaldi termikoa deiturikoa egiten da, korronte termikoak eta turbulenzia helikoidalak ohikoak baitira –eta beraz baita ezustekoak ere–. Urduña edo Arangoiti hegaldirako herri aproposak direla gehitu du Ibargoienek.

Airean gustura goazen arren, hamar minutu igaro dira eta helmugara iritsi gara dagoeneko. Lurra hankekin hartu behar da beti, baina ipurdi-koak jasotzea normala da, distantzia, bukaerako planeaketak, haizea eta makina bat gauza hartu behar direlako kontuan. Guk, monitorearen laguntzarekin, zortea izan dugu eta hankak jarri ditugu aurretik. Azkenean zorua dugu oinazpian, baina txorien moduan zerua konkistatzeko irrikaz gaude berriro ere. ■

<http://www.argaia.com/argaia-astekaria> helbidean, hegaldiari buruzko diaporama.